

# Hitzatzea

Antzerkia/Haurrak = Puzzle bat

ENKARNI GENUA  
«Txotxongillo Taldekoa»



Bai, bi hitz horiek, antzerkia/haurrak, berehala esaten dira. Eta beharbada biak lotzen dituen kontzeptua definitzea ez litzateke zailegia izango. Baina antzerkiko kataloxa hartzen badugu, konturatuko gara irudi hori ehunka zati txikik osatzen dutela, eta zati bakoitzetik bide asko ateratzen direla beste irudi desberdin batzuk osatzeko.

Beraz, orain nik patrikan ditudan pieza txiki horiek aterako ditut eta puzzle hori osatzen saiatuko naiz. Jakin badakit beste patrika batzuetan beste hainbat fitxa daudela, eta bizitzan gauza guztiekin gertatzen den bezala, beste irudi desberdin batzuk osa daitezkeela. Baina gaur nire txanda da.

Hona hemen patrikatik atera ditudan fitxak: haurrak, haurrak/aktoreak, antzerkia zertarako, haurrak ikusleak, noiz, non, zergatik, gurasoak, irakasleak, honek zenbat irauten du?, antzerki taldeak; haurrentzat egindako antzezlanak, zerbait esan, zerbait sentiarazi, kultur arduradunak... Uff! Agian fitxa gehiegi. Ez dakit denak erabiliko ditudan. Pixkanaka joango gara ea nahaste-borraste horretatik zerbait ateratzen den, edo gutxienez kezka bat pizten dugun.

Haurrak: Haurrak dira puzzle horretako zati garrantzitsuenetako bat. Neska-mutilak bi eratara ikusi ahal ditugu:

1) Haurrak ikusle moduan: hau da, antzerkikira joaten direnak, eta beste batzuek (antzerki taldeek) eskaintzen dutena ikusten dutenak.

2) Haurrak egile moduan: hau da, antzerkiko protagonistak.

Bigarren aukera horrekin hasiko gara. Konturatuko bagina munduko haur guztiak egoera normaletan antzerki jolasera jolasten dutela, fenomeno berezi baten aurrean gaudela aitortu beharko genuke. Haur baten eskutan edozein gauza uzten badugu (kamioa, makila bat, panpina, edo beste edozer), berehala, eta inork agindu gabe, jolasten hasiko da. Kamioa, brum-brum, martxan jarriko du, bera kamioilari bihurtzen; edo makila lantza bat bihurtuko du, beste batekin borroka egiteko, edo panpina besotan hartuko du, loarazteko.

Eta haur batzuk biltzen badira, berehala egingo dute banaketa: «ni ama izango naiz, eta zu umea, bale? Eta ni –galdetuko du beste haur batek– Ba zu irakaslea. Eta jolasa hasiko da. Normalean paperen banaketa liderrak egingo du, eta gehiegi eztabaidatu gabe arituko dira, zer esan behar duten buruz jakin gabe, hitzetik hortzera, bururatzen zaiena esaten, beren inguru behatzen, hitz batean: bizitzen ikasten. «Rol Joko» horiek baliabide bikaina eskaintzen dute norberaren eta besteen inguruaren ezagupena lortzeko.

Eta Joko Dramatikoko hori horrela bada, eta negarra, barrea eta berba egitea hain berezkoa bada, bultzatu egin beharko genuke. Zergatik? Irakurri Alfredo Mantovani maisuak ematen digun erantzuna:

«[...] Porque es el drama lo que hace evocar la vida afectiva del niño; porque se escapa de los rígidos cánones de la representación teatral ortodoxa para permitir al niño una actividad sin coacciones ni sanciones; porque rompe con los límites asfixiantes de textos aprendidos de memoria...; porque interesa más el proceso que los resultados; porque no pretende lograr la "maravillosa" obra de arte, sino que procuran que los niños aprendan a comunicarse entre sí; porque es un juego que en definitiva permite a



los niños disponer de un instrumento de aprehensión del mundo y de análisis de lo que él existe».<sup>1</sup>

Eta jolas dramatiko hori non egin behar dute haurrek? Leku guztietan: eskolatik kanpo (haurrei jolasteko denbora eskaintzen badiugu), eta, batez ere, eskolan. Horretarako, badugu Diseinu Curricularra, eta Arte Hezkuntzaren barruan, Dramatizazioa azaltzen da. Kontuan hartu behar duzue Haur Hezkuntzari eta 1. eta, agian, 2. zikloetako Lehen Hezkuntzari buruz hitz egiten ari naizela. Hau da, 3-10 urte bitarteko haurrei buruz.

Adierazpen-azalpen horiek, askean eta jolasean oinarrituak izan behar dute: aldi berean, ez dute zertan esfortzuaren eta lanaren aurka egon, betiere adinaren eboluzioa kontuan hartuz. Adierazpide dramatikoak badu, beraz, eduki ludiko eta fantastiko garrantzitsua, baina jolas guztietan bezala, baditu bete beharreko arauak eta ikasteko eta hobetzeko aukerak.

Bide horretatik jarraituz, neska-mutilak, lehen Hezkuntzako 3. zikloan Lehen Hezkuntzan, edo batzuetan lehenago, «betiko antzerkia» egitera iritsiko dira, era natural batean, behartu gabe, eta gainera, diziplina horretarako ondo prestatuta.

Eta eskolan hori egiten badugu, galde dezake irakasleren batek ea zer gertatuko den urtero egiten dugun «jaialdi erraldoiarekin». Hau da, daukagun denbora jolas dramatikorako erabiltzen badugu, ahozko edo keinuzko gorputz adierazpen jokoak egiten baditugu, ez da denborarik izango «betiko antzerkia» egiteko. Eta zer esango dute gurasoek ez badituzte euren umeak eszenatoki baten gainean ikusten? Zer grabatuko dute euren kamera berriekin? Zer... Zer?

Galdera batekin emango dut nire iritzia. Haurrak gustagarriak izan behar duten antzezleak al dira, besterik gabe, edo dramatizazioaren

## Hitza

bidez espresatzen, komunikatzen, azken batean, bizitzen, erakutsi behar diegu? Eta horretarako ez dugu publikorik behar.

\* \* \*

Patrikatik beste fitxa batzuk ere atera ditut, gurasoei dagozkienak. Hona hemen guraso askok askotan erabilitako esaldi bat:

«Bai, bi urte ditu, baina gure haurra oso azkarra da. Badakit ikuskizun hau 6 urtetik gorakoentzat dagoela gomendatuta, baina...».

Esaldi hori berriki izandako gurasoek esaten dute. Haurrak oso azkar ikasi du oinez, hitz batzuk esaten ere ikasi du, eta orain, antzerkiko atarian irakurtzen dutenean emanaldia ez dela egokia 2 urteko haurrentzat, broma bat dela pentsatzen dute. Gure haurra bai! Antzerkian sartuko da. Eta aspertzen edo ikaritzen bada, edo besteak molestatzen baditu, edo antzerkian jasotzen duen lehendabiziko inpresioa ona ez bada...

Hara! Beste fitxa honetan galdera bat dago idatzita, 6 urteko ume baten gurasoek egindakoa: «Antzerki honek zenbat irauten du?» Galdera hori egiten dute bertan umea aparkatuta uzteko, eta saioa bukatu ondoren bila joateko. Gehienetan asko haserretu gabe erantzuten dut: 55 minutu. Baina batzuetan, animatzen naizenean, neuk beste galdera bat egiten diet:

«Aizue! Eta 55 minutu horietan zer egingo duzue, zuen alabarekin antzerkia ikusten egotea baina garrantzitsuagoa? Kafetxo bat hartu, zigarroa erre, zerbait erostera joan, lagunekin solastu, paseo motz bat eman... Eta badakizue zer galtzen duzuen? Zure umea barrez ikustea, bere begiak nola irekitzen dituen behatzea, haien galderak erantzutea, eta antzerkitik atera ondoren ikusita-koa komentatzea».

Azkeneko fitxa honetan gurasoak azaltzen dira, berriz ere. Larunbata da, eta egunkaria irakurtzen



ari dira, jakin nahi dute asteburu horretan zer dagoen programatuta euren seme-alabekin antzerkira joateko...

Zenbat fitxa! Zenbat irudi desberdin osatzen duten!

\* \* \*

Oraindik fitxa batzuk geratzen zaizkit poltsikoan. Esate baterako, antzerki taldeei dagozkienak. Zorionez, gure herrian gero eta talde gehiagok prestatzen dituzte haurrentzako antzezlanak. Nire patrikatik ateratzen dudant fitxan hitz bat azaltzen da: helburuak.

Ondo. Aztertuko dugu. Zer helburu bete behar du haurrentzat egiten dugun antzerkiak? Zerrenda luze bat idatz dezakegu. Hona hemen nirea:

- . Haurrak gozarazi.
- . Barre eginarazi.
- . Antzerkiaren misterioarekin liluratu.
- . Bestelako mundu batera eramane.
- . Pentsarazi.
- . Ametsak piztu.
- . Irudimena eta sormena landu
- . Emozionatu.
- . Beste elkarteak edo pertsonak nola bizi diren erakutsi.
- . Sentimenduak landu
- . Mundu ezezagunak erakutsi.

...

Hori dena ez da txantxetako gauza! Antzerki mundua oso zabala da eta talde bakoitzak bere proposamenak aukeratu behar ditu, baina beti, duintasun eta errespetu guztiarekin. Antzezlan bat muntatzeko barruan daukagun guztia eman behar da, eta lan handia egin. Roger Deldimek esaten duen bezala:

*«Todos los espectáculos deben responder al criterio de calidad artística. Criterio sobre el que hay que mostrarse intransigente. Lo más intransigente posible»*

*porque va dirigida a los jóvenes. Y la tentación de mostrarles ciertos subproductos fuertemente mediatizados (y de gran éxito entre ellos, dada su enorme carga publicitaria) es grande».*

\* \* \*

Patrika hutsa geratu al da? Ez da posible! Gaur egun oso garrantzitsua den elementu bat aztertu gabe geratzen da. Kultur arduradunak. Hara! Fitxa hau nahiko arraroa da. Marra batzuk ditu kolore guztietakoak, nahastuak. Ondo begiratzen baduzu, badirudi bizardun bat azaltzen dela. Programadorea ote, edo Olentzero? Badaezpada ere eskutitz bat idatziko diot:

Kultur arduradun txit hori!

Aurten oso ondo portatu naiz, beraz, hemen doazkizu nire eskabideak:

Urrea: Bai, Gogoratu nahi dizut haurrentzat ondo egiten den antzerkia errentagarria dela. Beraz, dirua inbertitu behar duzue taldeei laguntzen, programazioa zabala eskaintzen, herri guztietara antzerkia eramaten.

Bestalde, antzerki taldeen behar teknikoak errespetatu: tokia, baldintza teknikoak, haur

kopurua, antzezlan bakoitzeko adin egokia, iluntasuna beharrezkoa denean, eta abar. Galduta bazabiltza ondo etorriko zaizu INAEMek «Protocolo de las condiciones de exhibición en el teatro para niños, niñas y jóvenes» argitaratukoak irakurtzea.<sup>3</sup>


Eta bukatzeko, mesede bat eskatuko nizuke: sekula santan, behin ere ez, inoiz ez esan, askotan aurpegi inuxentea jarriaz, zorioneko esaldi hori:

«Sentitzen dut, baina gaur ezin dut zuen emaldia ikusi, bilera bat dut eta...».

Ez hori esan mesedez. Haurrentzat egiten den antzerkia oso gauza serioa da, edo izan behar du; beraz, zu egotea beharrezkoa da herriko haurrek zer ikusten duten epaitzeko.

\* \* \*

Klin, klin, klin! Oraindik fitxa gehiago? Hurrengo baterako utzi beharko ditut. Antzerki mundua bueltaka dabil, eta beti ondo etorriko zaigu hausnarketa berri bat egitea. Gaur egindako puzzlea amaitu da. Gehiegi gustatzen ez bazaizue, beste bat egin, denok fitxa ugari dugu eta gure poltsikoetan.



1. Alfredo Mantovani: *El teatro: un juego más*, ed. Nuestra Cultura.
2. Roger Deldime: *Por una educación en el Teatro*. LANSMAN. La Montagne Magique.
3. Koordinatzailea Ignacio Guzman: *Escenarios para la imaginación*. INAEM.